

BAZTANGO UDALEKO BERDINTASUN BATZORDE IREKIA
COMISIÓN ABIERTA DE IGUALDAD DEL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN

Data: 2012ko irailaren 6a.

Hasiera ordua: 18:00

Bukaera ordua: 19:40

Lekua: Baztango Udala

Bertaratutakoak:

Garbiñe Elizegi (Alkatea), Maite Oteiza (BILDU), Hita Sagaseta, Aitziber Zapiain (Gaztetxea), Nora Salbotx eta Jaione Iraola (Berdintasun teknikaria)

Gai –zerrenda:

1. Aurreko Batzordeko akta onartzea.
2. Berdintasunerako Teknikariaren aurkezpena
3. Baztango Udalaren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako barne planerako diagnostikoa egiteko lan proposamena adostu, bertaratutako ekarpenak aztertu ondoren.

Lehendabiziko puntua:

Aurreko bileraren akta onartzen da.

Bileren ordua 17:30etara aurreratzea proposatzen du Hitak. Proposamena onartzen da.

Bigarren puntua:

Berdintasun teknikariaren aukeraketa prozesuaren eta kontratazioaren berri ematen da. Lan postua betetzen ari den Jaione Iraolaren aurkezpena egiten da. Alkate eta teknikariak adostutako lan plangintzaren berri ematen da: Bestetan Udalak berdintasunaren aldeko kanpaina aurrera eramatea eta Baztango Udalaren Berdintasunerako Barne Planaren lan proposamena egin eta garatzea.

Hirugarren puntua:

Berdintasunerako barne planaren lan proposamena jorratu aurretik, Bestetan berdintasunaren aldeko Udalak kanpainaren berri ematea proposatu eta onartzen da.

Baztango herrietan izan duen harrera eta atxikimenduen azalpena emanda, Elbeteko bestetan antolatutako Mutildantza taldearen emanaldiaren inguruan eztabaidatu da. Emakumeek mutildantzan parte-hartu ez dezaten strategiaren barruko jokaldizat hartuta, emanaldia ospatu eta gertatzen dena ikustea adostu da, ondoren gertatutakoaren arabera aritzeko.

Fecha: 6 de septiembre de 2012.

Hora de inicio: 18:00

Hora de finalización: 19:40

Lugar: Ayuntamiento de Baztan

Asistentes:

Garbiñe Elizegi (Alcaldesa), Maite Oteiza (BILDU), Hita Sagaseta, Aitziber Zapiain (Gaztetxea), Nora Salbotx y Jaione Iraola (Técnica de igualdad)

Orden del día:

1. *Aprobación del acta anterior*
2. *Presentación de la Técnica de Igualdad*
3. *Consensuar, analizando las aportaciones realizadas, la propuesta de trabajo para la realización del diagnóstico del Plan interno de igualdad entre mujeres y hombres del Ayuntamiento de Baztan*

Primer punto:

Se aprueba el acta de la reunión anterior.

Hita propone adelantar la hora de reunión a las 17:30. Se acepta la propuesta.

Segundo punto:

Se informa sobre el proceso de selección y la contratación de la técnica de igualdad. Se presenta a Jaione Iraola Rozas, quien ocupa el puesto. Se informa sobre el plan de trabajo acordado entre la Alcaldesa y la técnica: gestión de la Campaña Ayuntamientos por la igualdad en fiestas y elaboración y desarrollo de la Propuesta de trabajo del Plan interno para la igualdad del Ayuntamiento de Baztan.

Tercer punto:

Antes de tratar la propuesta de trabajo del plan se propone y aprueba informar antes sobre la Campaña de Ayuntamientos por la igualdad en fiestas.

Se informa sobre la aceptación y las adhesiones habidas en los pueblos de Baztan. Se debate en torno a la organización de la actuación del grupo de Mutildantza de Elbet. Se considera que forma parte de la estrategia para la no participación de las mujeres en la mutildantza y se acuerda esperar a que el espectáculo se lleve a cabo y decidir después en base a lo que suceda.

Laugarren puntua:

Berdintasunerako barne planaren lan proposamenaren azalpen laburbildua eginda, ondorengo ekarpenak gehitzea adosten da:

- ✓ Proiektuaren berri emateko informazio saioa: bi saio antolatuko dira, bata politikariek eta bestea langileekin. Politikariei zuzendutako saioan Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak Enpresetan berdintasun planak egiteko eskaintzen duen aholku-zerbitzuak parte-hartzea.
- ✓ Berdintasun Batzordeak Berdintasunerako barne plana abian jartzeko hasitako lan prozesua gidatzen duen lan proposamena eta plana gauzatu ahal izateko Udalak eman beharreko pausuak ematera eta behar diren baliabideak esleitzeko konpromiso eskaera Udaleko Osoko Bilkurara eramatea bertan onesteko. Aurretik Udaleko talde politikoekin informazio bilerak egitea. Hurrengo Ohiko Osoko Bilkura urriaren 26an proposamena eta konpromiso eskaera aurkeztea.
- ✓ Berdintasunerako Lan Taldearen osaera: informazio saioetan taldean parte-hartzeko gonbidapena luzatuko da. Gutxienez bi ordezkari politiko egonen dira eta langileen aldetik, udaleko sail bakoitzetik ordezkari bat. Erantzunik ez balego, Alkateak izendatuko ditu taldea osatuko duten pertsonak. Berdintasun Batzordeko ordezkariak ere egonen da, Nora Salbotx.

Bosgarren puntua:

Azaroaren 25a, Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela eta, ze o zer antolatzea proposatzen da. Nafarroako hainbat udalek duela urte batzuk kanpaina bateratua egiten dihardutenez, bertan parte hartzea aipatzen da. Kanpaina udaletako berdintasun zerbitzuetatik bideratzen denez, berdintasun teknikarien bilera bat burutuko da irailaren 21an gaia jorrazteko. Bilerara Berdintasun teknikaria

Cuarto punto:

Tras una exposición resumida de la propuesta del Plan interno para la igualdad, se acuerda incluir las siguientes aportaciones:

- ✓ *Sesión informativa del proyecto: se organizarán dos sesiones, una con personal político y otra con la plantilla. Se contará con la participación del Servicio de asesoramiento para la elaboración de planes de igualdad en empresas del Instituto Navarro para la Familia e Igualdad en la sesión dirigida al personal político.*
- ✓ *La Comisión de Igualdad llevará al Pleno, para su aprobación, la propuesta de trabajo elaborada como guía del proceso de trabajo iniciado para la puesta en marcha del Plan interno de igualdad y solicitará el compromiso del Ayuntamiento a dar los pasos necesarios y a dotar de los recursos necesarios para llevar a cabo el Plan. Realización de reuniones previas con los grupos políticos del Ayuntamiento. Llevar la propuesta y la solicitud de compromiso al Pleno del 26 de Octubre.*
- ✓ *Composición del Grupo de Trabajo para la Igualdad: en las sesiones informativas se hará una invitación abierta para participar en el grupo. Constará al menos de dos personas en representación del personal político y de una persona en representación de cada área del ayuntamiento. En caso de no obtener respuesta, Alcaldía nombrará a las personas que conformarán el grupo. También contará con representación de la Comisión de Igualdad, Nora Salbotx.*

Quinto punto:

Se propone la organización de alguna actividad en torno al 25 de Noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres. Se comenta la posibilidad de tomar parte en la campaña conjunta que vienen realizando algunos ayuntamientos de Navarra. La campaña la llevan los Servicios de Igualdad de los ayuntamientos y hay convocada una reunión de Técnicas el 21 de septiembre para tratar el

joanen da eta bertan hitz egindakoaren berri emanen dio Batzordeari.

Seigarren puntua:

Batzordeen bileren maiztasunaren inguruan solastu eta sei astetan behin egitea adostu da, sortu daitezken beharretara baldintzatua.

el tema. La Técnica de Igualdad acudirá a la reunión e informará a la Comisión

Sexto punto:

Se trata el tema de la periodicidad de las reuniones, y se acuerda que sea cada seis semanas, condicionada a las necesidades que puedan surgir.

HURRENGO BILERA: urriaren 25ean, 17:30etan, Baztango Udaletxean.

PRÓXIMA REUNIÓN: el 25 de octubre, a las 17:30, en el Ayuntamiento de Baztan.

Elizondon, 2012ko irailaren 7an.

Jaione Iraola Rozas

Baztango Udaleko Berdintasunerako teknikaria